

KONTROL MOZIOA

LEHEN HEZKUNTZAKO IGERIKETA IKASTAROEI BURUZKOA

Itziar Iturri Arrazola, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako **KONTROL MOZIO** hau aurkeztu du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2026ko otsailaren 15ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Martuteneko Arantzazuko Ama ikastolako LH1eko eta LH2ko ikasleek Kirol Patronatuak antolatutako ikastaroetan parte hartu ohi dute. Guraso elkartearen aburuz ikastaro hauek ez dira luxu bat, behar bat baizik: ikasleek oinarrizko uretako trebetasunak eskuratzeko aukera ematen dute, uretan segurtasuna irabazteko eta konfiantza, ongizate fisikoa eta soziala garatzeko. Horregatik, ikastaro hauen gauzatzearekin guztiz konprometituta daude, baina arazo bat dute ikasleak igerilekura eramateko.

Hilabete honetako Batzordeetan azaldu genuen bezala, Arantzazuko Ama ikastola **kiroldegirik ez** duen auzo batean dagoenez, ikasleak garraiatzeko autobus pribatu bat kontratatzea behartuta daude; ikastaroen ordutegiak ez dietelako aukerarik ematen jarduera eskola-ordutegiaren barruan egiteko garraio publikoa erabili ezker. Horregatik, joan-etorritako garraio pribatua kontratatzea behartuta daude.

Garraio honek ia 5.000 euro-ko kostua dakarkie ikasturteko eta familia askorentzat gastu hori bere gain hartzea ezinezkoa da, zailtasun ekonomiko handiak baitituzte jada.

Egoera honek desberdintasuna sortzen du: beste auzo batzuetan jarduera hauek eskola ordutegiaren barruan, garraio publikoan edo oinez egin daitezkeen bitartean, Martuteneko ikasleen parte-hartzea arrazoi ekonomikoengatik baldintzatuta dago, jarduera hau hezkuntzarako eta garapen integralerako funtsezkoa izan arren.

Batzordean gaia jorratu genuenean zinegotzi delegatuak azaldu zuen Aldundiak diruz laguntzen dituela garraio kostu hauek, baina jakin dugunez Aldundiak ez du %100ean osatzen garraio kostu hau.

Gauzak horrela, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkeztu du:

- Udaltzaren hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari Arantzazuko Ama ikastolako ikasleen eta kasu berdinean egon daitezkeen Donostiako beste hezkuntza zentroetako ikasleei Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntzen ez duen garraio gastua osatzeko konpromisoa har dezala, hiriko ikasle guztiak baldintza berberak izan ditzaten igeriketa ikastaroetan parte hartzeko.

Donostian, 2026ko otsailaren 19an

Itziar Iturri Arrazola
EH Bildu udal taldeko zinegotzia